*Aurrera, batera!*

# Aretxabaleta

*Mira al futuro*

eaj pnv



## *Etorkizunari ilusio eta indarrez heltzen diogu, etorkizuna ereiten jarraitu behar dugulako, elkarrekin, elkarlanean, Aretxabaletak aurrera egiteko, garenaz harro, komunitate senari eutsiz.*

## *Afrontamos el futuro con ilusión y fuerza. Aretxabaleta debe seguir avanzando por medio de nuevos proyectos. Debemos afrontar los retos con determinación, juntos y juntas, de forma colaborativa.*

**Duela 8 urte EAJ-PNVek udal gobernuaren buru ekindako bideari jarraipena eman nahi diogu proiektu berriekin atxabaltarren alde lanean jarraitzeko. Gogoz, ilusioz eta arduraz eusten diot Aretxabaleta gidatzeko erronkari, gure herriari behar duen eta merezi duen etorkizuna emateko, proiektu berrien eskutik, garenetik abiatuta, gure nortasuna balioan jarriz eta sendotuz, komunitatearekin elkarlanean. Gizarte babesean, ekonomiaren garapenean eta nortasunean azpimarra jarrita.**
**Hori da defendatzen dudan herri eredua eta etorkizunean nahiko nukeen Aretxabaleta: ekonomikoki oparoa, abegitsua eta eskuzabala, atxabaltar guztien ongizateaz arduratzen dena, kulturalki bizia, euskaltzalea, berdinzalea eta aldaketa klimatikoaren erronkari erantzungo diona. Hori da aurrera egiteko bidea, zuekin egin nahiko nukeen bidea.**

*Queremos consolidar el camino emprendido por EAJ-PNV hace 8 años al frente del gobierno municipal, con un proyecto ilusionante y un equipo de trabajo fuerte.*
*Asumo este reto con emoción, ganas y responsabilidad, con el propósito de seguir mejorando Aretxabaleta y situar nuestro municipio en clave de futuro de la mano de nuevos proyectos; partiendo de lo que somos, de nuestros valores, basando nuestra labor en la cercanía y en la escucha; poniendo el acento en la protección social, en el desarrollo económico y en nuestra identidad. Ese es el modelo de pueblo que defiendo; la Aretxabaleta que me gustaría en el futuro: una Aretxabaleta económicamente próspera, socialmente cohesionada, culturalmente viva, euskaldun, igualitaria y sostenible. Ese es el camino a recorrer para avanzar. Ese es mi compromiso con Aretxabaleta.*





### MIKEL URIBETXEBARRIA BARRENA

**Aretxabaletako alkategaia**
Candidato a alcalde de Aretxabaleta

***55 urteko atxabaltarra. Ezkondua eta bi seme-alabaren aita. Ingeniari Tekniko Industriala da.***

*Atxabaltarra de 55 años. Casado y padre de dos hijos. Es Ingeniero Técnico Industrial.*





**MIKEL URIBE-TXEBARRIA BARRENA**

*Ingeniari Tekniko Industriala*



**CONCHI MUÑOZ MIGUEL**

*Erizaina, Kalitate eta Segurtasun arduraduna Debagoienako ESIn*



**JAVIER MAR MEDINA**

*Medikua, Debagoienako ESI*



**KARMELE URIBARRI URRESTI**

*Erizaina, gainbegirale orokorra Debagoienako ESIn*



**UNAI ELKORO OIANGUREN**

*2015-2023 bitartean Aretxabaletako Alkatea*



**MAIDER TRIVIÑO MADINABEITIA**

*Biokimikaria, Informatikaria eta Irakaslea*



**JOSE MIGUEL URIBARREN AZPIAZU**

*Erretiratua*



**NEREA GARCIA GIL**

*Arizmendiko langilea*



**KOLDO ZUBI-LLAGA BELTRÁN DE HEREDIA**

*Biltegiko arduraduna, ULMA*



**Mª CARMEN HERMOSA CRESPO**

*Erretiratua*



**AITOR GABILONDO ARENAZA**

*Kooperatibista*



**ARRITXU OLIDEN BERGARA**

*Enplegu eta formakuntza teknikaria Lanbiden*



**GALO SANCHEZ VALOR**

*Ekonomilari erretiratua*



**Mª PILAR LEA-NIZBARRUTIA DE BIZKARRALEGORRA**

*Erretiratua*



**HARITZ SOLUPE URRESTI**

*Ekitaldien ekoizlea*



**ALEXANDER SEILER**

*Ingeniari Industriala*

ABALETA



# ZAINTZA, ARRETA ETA OSASUN EKOSISTEMA
## ECOSISTEMA DE CUIDADOS, ATENCIÓN Y SALUD

**Arreta eta zaintza ekosistema berritzailea garatuko dugu, adinean aurrera goazen heinean sortzen zaizkigun beharrei aurre egiteko. Komentuan kokatuta egongo dira autonomoak diren edo mendekotasun maila arina duten adinekoentzat eguneko arreta zentroa eta jubilatuen egoitza. Etxebizitza komunitarioen proiektua ere martxan jarriko dugu bertan, eta osasun-zentro berriak borobilduko du ekosistemaren multzoa.**

Desarrollaremos un ecosistema de atención y cuidados innovador para atender a las necesidades que surgen con la edad. En el convento estarán ubicados el centro de atención diurna, para personas mayores autónomas o con grado de dependencia leve, y el hogar del jubilado. También pondremos en marcha el proyecto de viviendas comunitarias. Y el nuevo centro de salud completará el conjunto.



## BERDINTASUNA ETA JUSTIZIA SOZIALA
### IGUALDAD Y JUSTICIA SOCIAL

**Berdintasuna eta justizia sozialaren gure apustua irmoa da: euskaraz bizi nahi dugulako, emakume eta gizonen parekidetasunerantz aurrera egiteko, sexu aniztasuna askatasunez bizitzeko, jaioterria kontutan hartu gabe herritar guztiok dugulako lan eta etxebizitza duinerako eskubidea, eta inor atzean utziko ez dugulako.**

Nuestra apuesta por la igualdad y la justicia social es firme: queremos vivir en euskera, avanzar hacia la paridad de mujeres y hombres, vivir con libertad la diversidad sexual, porque, independientemente del lugar de nacimiento, todas las personas tenemos derecho a un trabajo y a una vivienda digna, y porque no vamos a dejar a nadie atrás.



## BASOEN OREKA
### EQUILIBRIO DE LOS BOSQUES

**Aretxabaletako paisaian bertako zuhaitz espezien baso-azalera areagotuko dugu naturguneen kontserbazioaren eta baso ustiaketaren arteko oreka bilatu asmoz. Honetarako, Udal jabetzako basoetan bertako zuhaitz espezieak landatuko ditugu.**

Aumentaremos la superficie forestal de las especies arbóreas autóctonas en el paisaje de Aretxabaleta, buscando un equilibrio entre la conservación de los espacios naturales y la explotación forestal. Para ello, plantaremos especies arbóreas autóctonas en los bosques de propiedad municipal.





## BARATZE KOMUNITARIOAK
HUERTOS COMUNITARIOS

**Ingurumenarekiko eta jasangarritasunarekiko gure apustua sendoa da. Besteak beste, baratze komunitarioak sustatuko ditugu herrian, barazki eta produktu ekologikoak ekoizteko interesa duen atxabaltarrei zuzenduta. Nekazaritza, ekologia, autokontsumoa eta elikadura osasuntsuaren inguruko heziketa eta sentsibilizazioa egingo dugu herrian.**

Nuestra apuesta por el medio ambiente y la sostenibilidad es sólida. Pondremos en marcha huertos comunitarios dirigidos a las y los atxabaltarras interesados en la producción de hortalizas y productos ecológicos. Llevaremos a cabo programas de formación y sensibilización en agricultura, ecología, autoconsumo y alimentación saludable.

## GAZTEAK, SORKUNTZA ETA KULTURA
JUVENTUD, CREATIVIDAD Y CULTURA

**Gazteak dira Aretxabaletaren etorkizuna, eta euren jarduerak burutzeko baliabideak behar dituzte. Gazteen beharrak gainontzeko sortzaile eta kultur eragileen beharrekin batera aztertu, eta herriko baliabide publikoak era orekatuan antolatuko ditugu, gazteen aisiak, sormenak eta kulturaren hedapenak dagokien tokia izan dezaten.**

La juventud es el futuro del Aretxabaleta, y necesita recursos para desarrollar sus actividades. Analizaremos las necesidades de las y los jóvenes junto con las del resto de agentes creativos y culturales, y organizaremos los recursos públicos locales de forma equilibrada, para que el ocio juvenil, la creatividad y la difusión de la cultura tengan su lugar.




# INSTITUTU BERRIA
NUEVO INSTITUTO

**Hezkuntza institutu berria eraikiko dugu Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean, gaur egun Kurtzebarri eskolak dituen espazio eta ekipamendu gabeziei irtenbidea eman asmoz. Punta-puntako ikasgela eta, aisialdi zein kirol ekipamenduak izango dituen proiektu honekin, gure herrian kalitatezko hezkuntza bermatzen jarraituko dugu.**

Construiremos un nuevo instituto de educación en colaboración con el Gobierno Vasco, con el objetivo de dar solución a las carencias de espacio y equipamiento que tiene actualmente la escuela Kurtzebarri. Con este proyecto, que contará con aulas y equipamientos de ocio y deporte punteros, seguiremos garantizando una educación de calidad en nuestro pueblo.



# LAUSITA KALEAREN ERABERRITZEA
## REFORMA DE CALLE LAUSITA

**Lausita kaleko hornidura eta saneamendu sareak berrituko ditugu, ur galerarik ez izateko eta erabilitako ura araztegira bideratzeko. Era berean, irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio-lanak burutuko ditugu, Santa Kurtz kalean egin bezala. Espaloietako mailak jaistearekin bat, oinezkoentzat traba arkitektonikorik gabeko auzo irisgarri eta erosoa bilakatuko da Lausita.**

Renovaremos las redes de abastecimiento y saneamiento de la calle Lausita para evitar pérdidas de agua y canalizar el agua utilizada hacia la depuradora. Asimismo, llevaremos a cabo las obras de urbanización para mejorar la accesibilidad, al igual que se ha hecho en la calle Santa Kurtz. Con la bajada de las aceras a ras, Lausita se convertirá en un barrio cómodo y accesible, sin barreras arquitectónicas para los peatones.



# ITURRIGORRI FRONTOIA
## FRONTÓN ITURRIGORRI

**Atxabaltarrok eta herriko pilota taldeko kideek egoera onean dagoen frontoi duina merezi dutelako, Iturrigorri eraberritzeko konpromisoa hartzen dugu. Eraikina guztiz itxiko dugu, aldagelak gehituko ditugu, eta pilotaren kirol praktika egoki baterako beharrezkoak den birgaitze orokorra egingo dugu.**

Los y las atxabaltarras y el club de pelota local se merecen un frontón digno y en buenas condiciones. Por lo tanto, nos comprometemos a reformar el frontón Iturrigorri. Cerraremos las aberturas de la fachada, incorporaremos vestuarios y realizaremos una reforma general del resto de la instalación que así lo precise para la práctica deportiva de la pelota, en condiciones.



# MERKATARITZA ETA OSTALARITZA
## COMERCIO Y HOSTELERIA

**Aretxabaletako kaleak bizirik nahi baditugu, ezinbestekoa da herriko merkataritza eta ostalaritza indartsu bat edukitzea. Aisialdi eta erosketa ohiturak etengabe aldatzen ari diren garaiotan, herriko merkataritza eta ostalaritza txikia denboran duintasunez iraunarazteko neurri berriak garatuko ditugu sektorearekin elkarlanean**

Es imprescindible contar con un comercio y una hostelería local fuertes si queremos vida en las calles de Aretxabaleta. Desarrollaremos en colaboración con el sector nuevas medidas para que el comercio y la hostelería local perduren dignamente en el tiempo, y hacer frente a los constantes cambios en los hábitos de ocio y compra.



## ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
## ENERGÍAS RENOVABLES

**Energia berriztagarrien erabilera ekipamenduetara, hiri-altzarietara eta udal-titulartasuneko eraikinetara zabalduko dugu. Eta Aretxabaletako karbono-aztarna murrizteko helburuarekin, etxebizitzen, saltokien eta enpresen trantsizio energetikoa sustatuko dugu ingurumena babesteko, pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko eta epe luzera aurrezteko.**

Extenderemos el uso de las energías renovables a los equipamientos, mobiliario urbano y edificios de titularidad municipal. Y promoveremos la transición energética de viviendas, comercios y empresas con el objetivo colectivo de disminuir la huella de carbono de Aretxabaleta, y proteger el medioambiente, mejorar la calidad de vida de las personas y generar ahorro a largo plazo.



## GOBERNANTZA EREDUA
## MODELO DE GOBERNANZA

**Egiten dena bezain garrantzitsua da hura egiteko modua. Honegatik, gobernantza eredu ireki eta gardenean sakontzen jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu, gertutasuna mantenduz eta herritarrari lehentasuna emanez. Ondo eginiko lanaren balioan sinisten dugu eta elkarrekin egindakoan, auzo-lanean, Aretxabaletak aurrera egin dezan akordioaren bidetik.**

Tan importante es hacer como la manera de hacerlo. Por ello, nos comprometemos a seguir profundizando en un modelo de gobernanza abierto y transparente, manteniendo la cercanía y priorizando a la ciudadanía. Creemos en el valor del trabajo bien hecho y en la colaboración, para que Aretxabaleta avance por la vía del acuerdo.



## KIROLA ETA KIROLDEGI AURREKO BERDEGUNEA
## DEPORTE Y ZONA VERDE FRENTE AL POLIDEPORTIVO

**Jarduera fisikoak herritar osasuntsu eta aktibo bihurtzen gaitu. Honegatik, kirol praktika guztiak indartzen jarraituko dugu eta Ibarrako kiroldegi aurreko berdegunean ur jolasak, kalistenia parkea eta aisialdirako elementuak jarriko ditugu. Skate park eta futbol zelaiarekin batera, haur, gazte eta helduen aisialdirako gune atsegin bat bilakatuko da.**

La actividad física nos hace personas sanas y activas. Seguiremos reforzando todas las prácticas deportivas, e instalaremos juegos de agua, parque de calistenia y elementos de ocio en la zona verde frente al polideportivo Ibarra. Creará, junto con el skatepark y el campo de fútbol, una agradable zona de esparcimiento para niños, jóvenes y adultos.



# Orain norabide argi batekin aurrera egiteko garaia da

## *Ahora es momento de avanzar con un rumbo claro*

**HARREMANETAN JARRI**
PONTE EN CONTACTO

@ eajpnvaretxabaleta

@EAJ_Atxabalta

@eajpnvaretxabaleta

@eajpnvgipuzkoa

943 795 743

eajaretxabaleta@gmail.com

eaj pnv

**#AURRERABATERA**